

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Saenz de Biteri Saenz de Biteri
Legutio, Araba
(1925)

Aurkibidea



Biografia



Legutioko Etxebarri kale-baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama berriz legutioarra zen. Gerran etxea erre zieten eta gertuko beste etxe bat erosi zuten geroago. Erretako etxea Urrunaga urtegiko urpean geratu zen. Eskolan euskaraz mintzatzea oso zigortua zegoela dio. Bizi guztia baserrian eman du, baina arotz lanean ere jardun zuen “Construcciones Lopez de Maturana” enpresan 35 urtez. Gerrateaz, Legutianoko euskaraz, eta urtegiak herrian izan duen eraginaz hitz egiten du.

Zintak

LEG-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2002-06-04
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

LEG-007

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-04-19
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

LEG-048

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2002-04-13
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

LEG-057

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2004-02-02

- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. Bilbon jaio eta Legution bizi

- **Erref:** LEG-001/002
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bilbon jaio eta Legution bizi izandu zen. Amak dozena bat ardi izango zituen eta harekin ateratzen zuenarekin mantentzen ziren umetan. Aitak Bilbon lan egiten zuen eta handik ere diru apur bat lortzen zuten.

2. Diru-urritasuna; ezagun baten inguruko pasadizo

- **Erref:** LEG-001/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Diruz urri ibiltzen ziren orduan. Diru premian zegoen ezagun baten pasadizoa kontatzen dute. Arrautzekin diru pixka bat lortzen zuten.

3. Gerra garaian etxez aldatu beharra

- **Erref:** LEG-001/004
- **Iraupena:** 0:06:34. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, gorriak eta nazionalak sartu zirenean, beraien etxea bien erdian zegoen; eta, horregatik, etxez aldatu behar izan zuten. Gerrako pasadizoa etxe inguruan. Gerra amaitzean nazionalak harriturik geratu ziren Jose eta Migelen etxean bizirik zeudela ikusita. Inguruko etxeek kalte handiak jasan zituzten.

4. Gurdiz Vitoria aldera bizimodua ateratzera

- **Erref:** LEG-001/005
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Ama Aramaiokoa eta aita legutioarra zituzten. 11-13 urte zituztela gurdia hartu eta familia osoa joan ziren Vitoria aldera, Villarrealera (Legutiora), bizimodua ateratzera, eta hango etxe batean hartu zituzten.

5. Legutioarrek ahuntzak eta behiak

- **Erref:** LEG-001/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Villarreal (Legutio) herri txikia zen. Gehienek behiak eta ahuntzak zituzten etxean. Auzokideak eta ingurua aipatzen ditu. Josek eta Migelek ardiak zituzten.

6. Errealik ez eta zinerik ezin ikusi

- **Erref:** LEG-001/008
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Garia ebakitzeko sasoia heltzen zenean, abuztuan, ama Arakara joaten zen oinez beste auzokide batzuekin eta iluntzerako bueltatzen zen etxera. Garia nola ebakitzen zuten azaltzen dute. Gari-sorta bati su eman eta haren argitan jaisten ziren kalera. Bide txarra egon arren ilusioz jaitsi ohi ziren kalera, nahiz eta gero dirua falta zitzaielako komediantek ikusi gabe etxeratu.</p>

7. Orduko janzkera: prakak, blusa eta alpargatak

- **Erref:** LEG-001/012
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Garai hartan belaunera arteko prakak, aitarenak, eta blusa jantzi ohi zituzten. Eta oinetan alpargatak, osorik sekula ibiltzen ez zituztenak. Barruko arroparik ez zuten erabiltzen 20 bat urte bete zituztenera arte. Txapela garrantzi handikoa zen eta lepoan bufanda erabiltzen zuten.

8. Santa Engraziko erromeria

- **Erref:** LEG-001/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Santa Engraziko ermitan apirilean erromeria egiten zen eta hango gertaera bat kontatzen du. Alpargatak puskatzeko beldurrez ibiltzen ziren. Erromerian soinu-jolea egoten zen eta harekin dantzan aritzen ziren.

9. Bi osaba soinu-jole

- **Erref:** LEG-001/014
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bi osaba soinu-jole izan zituzten, arotz lanetan ere ibiltzen zena bata, oso esku onekoa. Inguruko herrietan jotzen zuten eta haien pasadizoak kontatzen dituzte.

10. Gerra-garaiko egoera etxean

- **Erref:** LEG-001/017
- **Iraupena:** 0:06:20. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Goikoetxan egon zirenean, gerra-denboran, bi alderdien erdian egon ziren eta estutasunik handienak han pasa zituzten, bonbak bertan pasatzen zitzaizkien eta. Orduko gerra-denborako ingurua deskribatzen du.

11. Lehen dena auzolanean

- **Erref:** LEG-001/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:51:30. **Bukatu:** 00:52:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lehen auzolana egiten zen. Ardoa ematen zieten eta irrikitan egoten ziren ardoa edateko. Orduko gertaerak kontatzen ditu.

12. Erromerietako giroa

- **Erref:** LEG-001/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromerietan ez zuten edaten. Diru gutxirekin gauza asko egiten zuten. Mezara joan eta handik ateratakoan txikitoen bat edan eta poztuta ibiltzen ziren sarritan.</p>

13. Euskara debekatua gerra-denboran

- **Erref:** LEG-001/025
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:54:50. **Bukatu:** 00:57:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerra-denboran euskara asko galdu zen, debekatu egin zutelako. Reketeak euskararen kontrakoak ziren eta parre egiten zieten euskaraz egiten zutenei.

14. Erderaz tutik ere ez

- **Erref:** LEG-001/028
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gazteen artean euskaraz hitz egiten zuten, baita mediku eta apaizek ere. Ez zekiten erdaraz eta eskolan derrigorra zen hala hitz egitea. Inguruko herrietako euskalkiak aipatzen ditu.

15. Gerraostean artzain eta gau-eskolara

- **Erref:** LEG-007/005
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:06:31. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Nemesio gerra aurretik joan zen eskolara, gero gau-eskolara joan zen. Bere arreba gazteagoek ez zekiten erdaraz eta Francorekin ezin zen euskaraz egin. Maisua goizetan eskolan aritzen zen bera zen. Josek, oster, gerraostean eskolara bueltatzeko aukera izan zuen. Nemesioren anaiak gerrara joan ziren eta bera artzain lanetan ibili behar izan zen.</p>

16. Francok herri bat hartzerakoan eskolan ospatzen zuten

- **Erref:** LEG-007/007
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Francoren tropek herri bat hartzen zutenean, eskolan banderak eskuan hartuta ospatzen zuten.</p>

17. "Eskola monte" egin eta zigorra

- **Erref:** LEG-007/008
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maisua Federico Rodriguez zen. Bazekien euskaraz, baina ez zien egiten. "Eskola monte" (piper) eginez gero, zigortu egiten zituzten. Zerbait ez zekitenean jo egiten zien maisuak, bere semeak ere jotzen zituen.</p>

18. Mezara huts eginez gero, eskolan "kartzelara"

- **Erref:** LEG-007/009
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:11:33. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Ez baldin baziren joaten maisuak eskolan zuen egurrezko ziega antzeko batean sartzen zituen: bizpahiru orduz izaten zituen umeak bertan. Eskolan ere erlijio kontuek garrantzia zuten. Maisua abadeen laguna zen.</p>

19. Herrira joateko bide txarra

- **Erref:** LEG-007/011
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Jose behizain aritzen zen. Neguan, eskolara joateko bide txarra zuten eta pizti asko ikus zitezkeen bidean. Sarritan pentsatu egin behar izaten zuten nondik joan kalera. Herriko etxe batean bazkaltzen zuten eskola garaian. Apiriletik aurrera, artzain lanetan aritu behar izaten zuen.</p>

20. Gerran etxea erre eta kalera bizitzera

- **Erref:** LEG-007/012
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:15:13. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Hogei urte zituela tailer batean hasi zen arotz lanetan. Gerra garaian frontea hurre zuten eta etxe erre zien. Gero kalera joan ziren bizitzera alokairuan. Etxea zuten lekuan ardiak egoteko tejobana bat eraiki zuten. 40. hamarkada hasieran egin zuten errepidea.</p>

21. Lehertu gabeko bonbak kamaran

- **Erref:** LEG-007/016
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Legution etxe asko suntsitu zituzten gerra garaian. Beraiek alde egin zuten ebakuatuta eta itzultzerakoan, etxea hankaz gora topatu zuten; kamaran (ganbaran) lehertu gabeko lau bonba topatu zituzten. Ardiak Arakara eraman zituzten, baina 40 bat ardi kendu egin zizkieten.</p>

22. 103 ardi erre kisatu

- **Erref:** LEG-007/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>103 ardi kendu zizkieten gerran. Ganadua basoan zegoen eta ez zieten harrapatu. Gorrien aldekoek kendu zizkieten ardiak jateko.</p>

23. Behi-uztarria

- **Erref:** LEG-007/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:27:09. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Uztarrirako behiak erabiltzen zituzten, oso behi onak. Uztartu, haga jarri eta gurdia jartzen zien basora egurretan joateko-eta. Lur gogorra goldatzeko beste baserriren bateko idi uztarria erabiltzen zuten. Gari gutxi zuten; izan ere, belar asko hazten zitzaion inguruan. Ardiak zein behiak landetan egoten ziren.</p>

24. Artoa

- **Erref:** LEG-007/023
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:30:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Irina erosi eta etxean egiten zuten ogia. Morokila eta tremesa. Artoa ganaduarentzako eta txerriarentzako izaten zen.</p>

25. Txerriek denetarik jan

- **Erref:** LEG-007/024
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Behin 120 kiloko txerriarekin egindako pernilak eta txorizoak eskegita zituztela jausi egin zitzaizkion. Txerriei jaten ematen ziena: gatzura, arto-irina egosita... Txerriak etxe kanpoan egoten ziren eta harrapatzen zuten guztia jaten zuten, baita apoak ere. Txerrien jatekoa egosten zuten marmita joz gero, laster hurbiltzen ziren txerriak. Arbia ganaduarentzako izaten zen.</p>

26. Bideak auzolanean

- **Erref:** LEG-007/030
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:15. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gauza asko egiten zituzten auzolanean. Bideak konpontzen ere aritzen ziren ardo apur baten truke. Idi- eta behi-uztarrien gurdia erabiltzen zituzten.</p>

27. Gerraostean ogi falta

- **Erref:** LEG-007/032
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:44:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraosteako errazionamenduan ogi apur bat ematen zien. Joserren etxean garagar irinarekin egiten zuten taloa. Errotak itxita zeuden eta Mekoletara (Otxandio) joaten ziren irinetan. Artoa entregatu egin behar izaten zuten. Nemesioren etxean, gerraostean garia ereiten zuten. Behin, 40 bat anega batu eta erdia kendu zieten.</p>

28. Eskolara gutxi, urrun zegoen

- **Erref:** LEG-007/038
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:50:09. **Bukatu:** 00:51:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Baserritarrak eskolara gutxi joan ziren. Ez zekien erdara, baina maisuak euskara apur bat bazekien eta ondo moldatu zen. Herria beraien etxetik urrun zegoen eta oinez joan behar izaten zuten. Kalera oso gutxi joaten ziren, domeketan-eta basora joaten ziren.</p>

29. Behiak tasatzera kalera

- **Erref:** LEG-007/039
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:51:13. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Hiru astetik hiru astera behiak tasatzen zituzten eta herriko behi denak eramaten zituzten herrira. Jose orduan joaten zen herrira, kalera, bestela ez zuen izaten aukerarik.</p>

30. Eskola berotzeko egurra etxetik eraman behar

- **Erref:** LEG-007/040
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:52:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan mapa zituzten horman, egurrez berotutako berogailua... Ikasleak eurak arduratzen ziren egurra eramateaz, bestela hotza pasatu behar zuten.</p>

31. Behiak batzen kandelaren argipean

- **Erref:** LEG-007/042
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:03. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Lehen egurra beharrezkoa zen ez baitzuten argindarrik. Behiak batzeko kandela erabiltzen zuten.</p>

32. Arropa eta oinetako eskasak

- **Erref:** LEG-007/043
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:00:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Ez zuten ganorazko arropa eta oinetakorik. Bildotsak lotzeko kordelak ere falta zituzten eta enborren azalak erabiltzen zituzten. Hiru anaiek alkandora bakarra zuten jaiegunetarako, txandaka janzteko. Gaur egungo pobreena lehengo aberatsena baino hobeto bizi dela dio.</p>

33. Miseria nagusi

- **Erref:** LEG-007/045
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:00:36. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Dena zuten eskas: dirua, arropak... Oiloak hiru arrautza emanaz gero saltzeko ziren jateko barik. Arrautzak zuen balioaren truke ekartzen zuten jeneroa kaletik etxera. Miseria eta pobrezia zen nagusi. Kaletarrek txarrago pasatu zuten.</p>

34. Urkiolara ortozik

- **Erref:** LEG-007/046
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Jaiegunetan Elosura edo Urrunagara joaten ziren. San Antonio egunez oinez joaten ziren Urkiolara. Nemesiok dio batzuk, baita bera ere, ortozik joaten zirela. Handik bueltan Otxandion egiten zen erromeria. Araba aldetik jende asko joaten ei zen Urkiolara gurdian.</p>

35. Madalena eta San Roke jaiak

- **Erref:** LEG-007/049
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:08:44. **Bukatu:** 01:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Madalenako ermitan jende asko batzen zen. Gaur egun egoera txarrean dago. Soinu-jotzaile onak zeuden herrian. San Roke ere ospatzen zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com